

Ezkerra eta etorkizunaren utopia

(II)

ADIBIDE BAT: ABERTZALETASUNA

"Nazionalismoa" beti burgesa eta erreazionarioa omen da: askotan entzun dugu hori. Batez ere ultra-ekzertiarrek, gure herria dela-ta darabiltzigan zereginak itxuragabeak direla, esan nahi zigutenean, horixe esan izan digute behin eta berriro. Azkeneko urteotan makina bat aldiz entzun behar izan dugu arrazoi hori, modu batetan ala bestetan. Hori lehenago esaten zigutenak, intelektuak ohoregarri presuak, Salvador de Madariaga, Ortega y Gasset, etc., izena doinutsuak zituzten, eta ez ziren batere ultrak; ultra-ekzertiarrek, behinik-behin. (Beste eskuindar eta faxista batzuk ez ditut aipatuko). Batzuek ala besteek historia unibertsalaren filosofia batetan oin-harzen dute, filosofia eurozentrata batetan hain zuzen, egia bait da Erdi-Europan nazionalismo burgesaren haroa pasea dela. (Hori gure ultraezkerrek bezain ongi daki S. de Madariagak. Baina guk ere bai). Ez naiz orain nazionalismo hortaz mintzatzen luzatuko (Europako Estaduen formazioa eraman gaituen nazionalismoa izandu da). Hilda, ez dirudi dagoenik: nazionalismo frantsesa hilda bada, hilda gero ere oso bizirik dagoela, esan beharko litzateke bestela. Eta alemana, eta ingelesa, eta noruegoa, eta portugesa. Eta beste batzuk. Mio Cid Roy Diaz de Vivar, berriz ere. Pasa ez izateaz gainera, apenas dirudi "nazionalismoa" burgesa bakarrik denik ere: eta Sobiet Batasuna? Eta Txina? Eta Albania, eta Polonia? Eta Vietnam? Geroz-eta sineskaitzagoa dirudi akusazio simple harek: kolonien liberazioa guden ondoren; sobietarrak eta txinarrak haseratu ondoren (Stalin-ek-eta) nazionalismoaren kondena hain zuzen sobietarren interes nazionalisten harma bezala aprobetxatzen zutela, ezagutu izan ondoren; palestinarren gudu garaian; eta Indotxinako bururak denboratortan batez ere. Egunotantze, potentzia haundiak beren interesen kartekin Indotxina musean jokatzea eseri direnean, bai Giap Ipar-Vietnamen eta bai Si-hanuk Printzea Kanboan (ekzertiarren idolo haundiak biak), abertzaletasuna beste guztiaren gainetik gora dugu mintzo izan eta gero, premiazkoa dirudi iadanki, abertzaletasun aurrerakoiak eta kontserbakoiak serioski berezteak. Eta serioski diot, zeren-eta orain arte, berezuntasun hori egiten ziguten ekzertiarrek, ia beti beren abertzaletasun falta zuzenesteko eta beste abertzaletasuna desprezioz gaitzesteko bakarrik, egin izan bait dute. Aitzkia hutsa izan da. Beren buruak "abertzale aurrerakoi" deklarazien zituzten, baina deklarazio dotore horrek ez zituen ezertara konprometitzen, "abertzale burgesak" erraz kondenatzen ez bazen.

Marxismoa, aspaldion ezkerre intelektualki elikatu duen teoria, beste gauza batzuen artean dudarik gabe nazionalista ere bazen fase historiko bat superatu nahirik, desarrolatua da. Nazio hauek ez die asko begiratu, hortako. Eta ez dago dudarik, marxismoak, Erdi-Europako gizartearen historia, mundu osoko historia guzien eredu bezala hartzen zuela (horregatik esaten da, "eurozentrata" dela, XIX. mendeko beste teoria historiko guziki bezalaxe). Abiadura honi jarraiki, Europako ezkerrek arreta gutxi eskaini diote beti nazio hauei, hau beste kontinenten batetan sortzen zenean ere. Ez naiz kontatzen hasiko, azkeneko berrogeitamar urte hontan zenbat diagnostiko faltso egin duen horregatik, Hirugarren Munduko gizartearen desarrolloari buruz batez ere. Baina ezkerrek (bai Sobiet Batasuna, eta bai Txina; eta baita aginpidea oraindik lortu ez duten ezkerrek ere) "nazionalismoa" kasu gehixeago egiten hasiak ditugu, zenbait eskarmentu gaitzoren ondoren.

Beraz, Alemaniako Alderdi Komunista maostatik, adibidez, zer ba, eta hain zuzen abertzalerik aski ez izate, egozten dio orain Alderdi Komunista sobietarrari: Alemaniaren batasunaz ez axolatzea. Maoistek, jeneralki, palestinarren burruka abertzaleari nahikoa laguntasunik ez ematea egozten diotela Sobiet Batasunari, ikusten dugu halaber. Txinarrak, areago, bigarren Mundu Guduak Europan sortutako nazio-mugen berrikuspene eskatzeraino doazkigu: batez ere Sobiet Batasunak Alemaniari kendutako eskualdeak ez dituzkete sobietartzat onartu nahi... Neofaxistak kenduta behintzat, burgeskume bugestzar burgesenak ere ez dira gaur mendebalean hain "nazionalista"! Beste zeini pasatzen zale kaskotik, Eguzkialdeko Prusia Alemaniari itzuli behar zaiola eskatzerik? Askoz gutiago eskatuta ere, makina batek entzun behar izan ditu imperialista, errebantxista, eta antzeko edertasunak. Eta orain txinoak serio-serio datozkigu "ipuin txino" horiek. Baina ez hori bakarrik: ezker guziki arnasarik gabe utzeko ateraldia zera izan da, alegia, tropa amerikanoak Europatik erretiratzearen kontra gogotik mintzatzen eta abahagiten ari dena, ez dela Txina besterik. Zeinek imajina honelakorik, duela hamar urte?... Baina hemen ez digu inporta, nazioarteko panorama politikoan urte gutitan nabari den kanbioak.

Bigarren Mundu-Gerraz gero, mundua luzaro egon da bi partetan erdibituta. Orduan ez zen zalagria justoak eta bekatiarik berezte. Bloke-interesek nazio-interesak irutsi zituzten (itxuraz), eta nazio-interesek ez baina, sistima ekonomiko eta politikoen ez-tabaidak arduratzen zuten jendea. Sistima-bloketan pentsatzen zen. Nazio-interesen gainetik zenden bloke-interesak. Baina iadanki eskema harek ez du gehi-ago balio: gauzak gehiegi konplikatu eta nahastu

dira. Sistima-blokeen arteko mugak, erori ez badira ere, irikiagoak bilakatu dira. Bion oposizioa ez da gehiago zeharokoa. Sistima ezberdinen arteko kolaborazioa sortu da, batik-bat, ekonomian, teknologian nahiz zientzietan. Eta sistimen (edo sistima-blokeen) eta nazioen interesek honez gero ez dute hitzez-hitz koiziditzen; askotan elkarri kontraesan ere egiten diote. Eta politikan hala bada, "filosofietan" ez da bestela. Ekzertiarrek lehenago "nazionalismoa" eta kezka abertzaleari oharkabean pasa bazitzaizkete, gaur ezin dute. Ezkerrek nazio-hauek axolatzen hasi dira (nola, zergatik, zein interesekin, eta zein neurritan, beste kontu bat da!). Hori, lehenago problema hauk irribarre errukitsu batekin likidatzen zituzten ekzertiarrek. Klase-burruka irabazteko gero nazio-arazorik ez legokeela, pentsatu ohi zuten ekzertiarrek. Baina hasera-haseratik hauzi nazionalak serio hartzen zituzten ezker berri bat ere bada, eta ezker honek beste ekzertiarrekin haingandik independente izan nahi luke: To Tshi-Minh, edo Cabral, edo beste izen asko kontatuzte ezker honek. Euskal Herrian ere bada ezker hori. Hau da, abertzaletasun kontserbakoiaren kritika hutsetan gelditzen ez dena: abertzaletasun aurrerakoiak desarrolatzen benetan saiatzen ari dena. Hauri "burges-tipi" deitzaiek, iadanki ez du ezer esplikatzeko, eta nazioarteko gorabeheri begira, ez du zentzurik behere.

Beraz, ez litzateke inor gehiegi harrituko, urte guti barru nazio-problema gehien-gehiena aipatuko dituztenak, ekzertiar "radikalekoak" izango balira (maoistak, adibidez). Orduan, burgesia txobinista denik ez, baina nahiko abertzalerik ez dela, esango da. (Espainiar buruz dagoeneko esaten dute, ta Espainiaren "independentzia" eskatzen dute). Eta, agian, orduan ekzertiar "radikalok" berriz oroituko dira, behinola Engelsek Poloniako burgesiaz, eta Manabendra Nath Royek Indiakoaz, horixe bera esaten zutela, burgesiek ez zirela abertzale aski (eta proletar-gau abertzale radikal izateko, eskatzen zutela). Eta gaur Pekinen esaten bada, Kaliningrad izeneko hiri sobietarrik ez dutela ezagutzen, Koeningberg izeneko hiria bakarrik baizik (Kanten sorlekuak: sobietarrek Alemaniari gerra ondoren kendutakoa), behar bada ekzertiarrek bat oraindik akordatuko da (nolanahi ere, ez Frantziari!), nola Leninek ere esaten zuten, Nizza italiarrena dela, ez frantsesa. Etan. Orainutsu arte honelakorik esaten inor ausartzen bazen, txantxetan bezalabilen ere, ekzertiarrek izarretarainoko garraixika hasten ziren. Orain, aldiz, burgesek etsi dute, gerrak de facto utzi zituen mugekin konformatu dira (Alemanak batez ere: hauena bait da problema, gaitzaile bakarrak berak izaki), utzi dituzte beren eskabide errebantxistak bazterreran, onartu dituzte errealdideak, atzo arte ekzertiarrek zuzendutak "eskabideak, superatu dute nazionalismoa (?): eta ekzertiarrik radikalenenak berak aitxatu dira orain, "sozial-imperialisten" eta "errebejonista arnaguetan" kontra, eskabide haiekin berekin. Ez dago dudarik: aldakuntza bat nabari da. Eta ez dakigu, zer ikustekoak garen oraindik...

Ez nioke balez gehiegi eman nahi, Europako ezkerren artean (batez ere maosten artean) nabari den, eta Txinaren ofentsiva politikoari zor diogun, aldakuntza honi. (Ez dut uste, Txinaren estrategian Euskal Herriak ezer pintatuko duenik). Ideietan arunkeri sor ditzakeen (eta honez gero sortzen hasia den) gauza bezala bakarrik aipatzen dut, baina hein hontan inportantea iruditzen zait. Txinak, dirudienez, USA-ren eta URSS-en aldean hirugarren bloke bat desiratzen du. Eta ez URSS-ek eta ez USA-k nahi luketena, adibidez, Europa batu eta bortiz bat, Txinak gustora baino gutorago ikusiko luke: eta, hain

zuzen, Europa ez-neutral edo ez neutraleki bat, Sobiet Batasunaren mendebaleko muga besterik gabe bacean utziko ez lukeena, eta buruz-buru bere burua tente jarriko lukeena. Joku honen ondorioei —desarrolorik izaten baldin bada, behintzat— ezin antzeman oraindik. Baina planteamenduetan faktore berririk gogoan edukitzera behartzen du, nolaznabi ere. Eta teoria jeneralean ere, orain arte asko zabartu diren puntuak berpentsatzera eta baliaberritzera, obligatzen du. Esaterako, Hirugarren Munduan Txinak beregaintasun eta askitasun nazionalaren asmoa za-baltzen du, expairik gabe herri gazteak bai Sobiet Batasunaren eta bai amerikanoen manupeko esferatik atertzeagatik. Baina hau modu benetan guziz burgesean ulertuko ez baldin bada (burgesiak egin-dako Estaduentzat bakarrik balio ez bada), ekzertiarrek naziotasunaren teoria orain arte baino saskonki-kiago landu beharko dute. Bistan dago, marxistek aspaldian egin izan duten berezuntasun arrunt eta ia beti kontentido guziz eskaseko hura, "nazionalismoa" eta "patriotismoa" bereziaz, hitz-joku hutsa ta hutsa-lata gertatzen dela, konzeptu bion mautia konkret eta gaurko egunaren arabera zehazten ez bada. Eta horixe da, ezkerrek iadanki egin beharra dadukutena. Prozesu politiko hau inola esplikatuko badituzte, abertzaletasun kontserbakoiak ta aurrerakoiak berezi beharra dago, beraz: baina ezkerrek ez daduka iadanki, berezuntasun hori Salomonek baino hobeto egin, eta beste ezer egin gabe patxadan gelditzerik (orain arte askotan egin duen moduan). Bere abertzaletasun aurrerakoiak egiazki desarrolatu ta obrekiri erakutsi beharko du, mogimendua ere ibiliaz demostratzen omen den bezalaxe.

Beti onartu nahi izan ez bada ere, eta batez ere, konsekuente jarraituz konklusioak azkeneraino gutfitan atera badira ere, berezuntasun hori aspaldi egin zuten gure artean. Esan liteke, berezuntasun horretzek posibilitatzen zuela 60 garren urteetan hasi zen herri-mugimendua guzia.

Pasarte klara bat, 60 garren lehen urteetako hauxe genuke. Txillardegik zuzen hauteman zuen abertzaletasun zahararen (eskuindarraren: "1900-eko 'bizkaitarrak' arraza-zaleak ziren, eta integrista hutsak") eta berriaren (ekzertiarren) kontradizioa non sortzen den (eta atzera haserako ideietara itzultzen gara honela):

"Hain zuzen ere (eskuindarrari) aintzinako mundua eder zaio, eta datorrena okaztagarri. Politikan berdin: Lege Zahararen urrutimuna da".

"Gizonaren dinatasunari eta gizatasunari gagozkiela; nahiz gauza ageria izan igaro diran denborak, alderik gehienarik, oraingoak baino txaragoak izan dirala, iragan denborak ihuratzen du. Euskal Herriari buruz, humengatik, bereala ezagutarazten dugu danok gure burua: eskuindarrek aspaldiko euskaldunen zorientasunaren ipua sinistaz nahi digute besteoi; eta ezin lorturik, gutaz hetsitzen dute. Zergatik bestiko? Orain arte, nere ustez, eta aspaldian ere gutxiago, euskaldunak zorixarrean eta zapalduki bizi izan dira. Eta hau egia dela, frogatzen ahal dela, uste dugu".

"Ezkerterrek uste dute, beraz, ba dala garaia euskaldun herriak lehenengo aldiz bere burua aitza dezan; eta hau esatean ez dugu milimetro bat ere atzera joan nahi, 'lege zahar' bila, denbora 'zorientatu' haiezaz ez baitugu deusik ere sinesten".

Gaurko herri-mugimendua eraginkina da, etorkizunaren utopia hori ideietan nahiz egintzetan obratzea.

(Jarraitzeko)

JOXE AZURMENDI

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA



Urbieta, 66

DONOSTIA



YOGUR

GURELESA
GOGOZKOENA

